



**HELDUEN
EUSKALDUNTZE
ALFABETATZEA
AURRERA BEGIRA**
BILBON, 2018KO AZAROAREN 9 ETA 10EAN
**GLOTODIDAKTIKA
VI. TOPAKETA**

www.ueu.eus

Laguntzailea



Babeslea

HABE

Antolatzailea



EGITARAUA

Azaroak 9, ostirala	
08:30-09:00	Dokumentazioaren banaketa
09:00-09:15	Harrera eta ongi etorria
09:15-10:00	Euskara gurutzebidean, eta HEA non kokatu behar da? <ul style="list-style-type: none"> • Paul Bilbao (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren idazkari nagusia) • Miren Dobaran (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea)
10:00-10:30	Euskalduntze alfabetatzeren argazkia datuen talaiatik. <ul style="list-style-type: none"> • Josu Perales (HABE)
10:30-11:30	Mahai ingurua: Euskalduntze-alfabetatzea: Eraginkorrak gara? Norantz goaz? <ul style="list-style-type: none"> • AEK • IKA • Gabriel Aresti Euskaltegia • Udal Euskaltegiak
11:30-12:00	Atsedena
12:00-12:45	Euskaldun berriak eta euskaldundu direnak. Nola eragin diegu? Zer behar dute? <ul style="list-style-type: none"> • Esti Amorrortu (Euskal Ikasketen Saila, DU)
12:45-14:00	Lan mundua: Elefantea. Plangintzak: Inurri-lana. Sareak euskalduntzen. <ul style="list-style-type: none"> • Patxi Saez (Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendaria eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kidea) • Maddi Etxebarria (Elhuyar)
14:00-15:30	Bazkaltzeko tarte
15:30-16:30	HEOC. Zer eskatzen digu eta zer eskaini? <ul style="list-style-type: none"> • Luis Maria Gonzalez de Txabbarri (HABE)
16:30-17:30	Zelan irakatsi ikuspegi berri batetik <ul style="list-style-type: none"> • Roberto Mielgo (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila, BAM)

Azaroak 10, larunbata	
9:00-10:00	Berbetan, eleketan, mintzatzen irakatsi. Ahozkoaren garrantzia. <ul style="list-style-type: none"> • Leire Diaz de Gereñu (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU) • Ibon Manterola (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU)
10:00-11:00	Zer dugu eta zer beharko genuke: Materialgintza <ul style="list-style-type: none"> • Ane Ortega (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila, BAM)
11:00-11:30	Atsedena
11:30-12:30	Euskararen ikaskuntza-prozesuetan teknologiak baliatzeko estrategiak. <ul style="list-style-type: none"> • Abel Camacho (Santurtziko Udal Euskaltegiako zuzendari ohia) • Mikel Iruskietia (UPV/EHUko irakaslea eta IXA taldeko ikerlaria)
12:30-13:30	Esperientzia eredugarriak <ul style="list-style-type: none"> • COMBI proiektua: lan eremu elebidunetan komunikatzen: (nagusien zaintzan dabilzan etorkinekin). Hizlaria: Petra Elser • Basuriko trebakuntza. Euskaltegiaren ekarpena Udaleko plangintzan. Hizlariak: Gotzone Agirre eta Iñigo Isuskiza. • Osakidetza, erronka berriak. Hizlariak: Jabier Gomez Aginaga, Iratxe Martinez Sustatxa eta Agurtzane Sotch.
13:30-14:00	Ondorioak eta amaiera.

Euskara gurutzebidean, eta HEA non kokatu behar da?

Paul Bilbao (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren idazkari nagusia)

Miren Dobaran (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Aurkezpenak bi galdera nagusiri erantzun nahi dio; batetik, helduen euskalduntzeak euskararen normalizazio prozesuan non kokatzen den eta zer eskain diezaiokeen. Horrela, helduen euskalduntzearen estrategikotasuna azpimarratuko dugu, garai batean zabalduko belaunaldi galduaren mitoa uxatuz. Bestetik, euskaltegiak betetzeko beharretik abiatuta, nondik jo litekeen proposatuko da. Horretarako, hiru elementuren uztarketaz jardungo dugu: hizkuntzaren beharra, hizkuntzaren prestigioa eta zabaldu beharreko mezuak. Halaber, horien osagarri den eta izaera tekniko-politikoagoa duen doakotasunaren beharra ere erantsiko zaie etorkizuneko erronkei.

Proposamena egiteko Kontseiluak azken urteotan onartutako hainbat dokumentu izan ditugu oinarrian. Gure Batzar Nagusiak 2009an ahoz batez onartutako Hizkuntza Politika Berri eta Eraginkorra; Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitateko ehundik gora eragilek adostutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa eta gure sektoreak prestatu eta herri ekimeneko euskaltegien %90en babesa duen Doakotasuneranzko bidean proposamena.

Euskalduntze alfabetatzeren argazkia datuen talaiatik.

Josu Perales (HABE)

1976/1977 ikasturtean, Alfabetatze, Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) jasotako ikasle-fitxak aztertu zituen SIADECOK (SIADECO, 1978). Egindako txostenean, Euskal Herri osoan euskara ikasten ziharduten 30.000 helduren berri eman zen. Ikasleria-motari dagokionez, gehienak oso gazteak ziren, –Hegoaldeko lau lurraldeetako datuen arabera, ikasleen % 52 15etik 24 urtera bitartekoak ziren, eta bazegoen 15 urtetik beheragoko ikaslerik ere– ; % 60 emakumezkoak ziren, eta % 40 gizonezkoak; % 47 jende ikaslea zen, eta % 53 enplegatuak. Txostenean bertan argitzen zenez, datuak AEKn euskara ikasten ari ziren ikasleenak ziren soilik. Baina ibili zen ikasle gehiagorik garai hartan euskara ikasten beste erakunde edota ikastegi batzuetan, hala nola Euskarazaleak elkarteak eginiko ikastaldietan, EUTGn (500 euskara-ikasle zituen garai hartan EUTGk, Zalbide 1977), IPESen, Lankide Aurrezkiek antolatutako ikastaldietan, ikastoletako haurren gurasoentzako saioetan, Donostiako Udalaren Escuela de Declamación Vasca - Euskal Iztundea delakoaren eskoletan, Lazkaoko eskolan, eta abarretan.

Saio honetan, labur eta gaingiroki ezinbestean, 41 urte horien joanean gertatukoari begirada bat emango diogu zenbaki nagusien bilakaera aztertuz. Hainbat zifrak ez dute gorabehera handirik izan. Beste batzuek, berriz, zeharo itxuraldatu dute lehengo argazki hura. Duela 41 urte alfabetatzea eta euskalduntzea zen xedea. Gaur egun esan genezake ez dagoela jadanik alfabetatzeko ikaslerik euskaltegietan. Irakasleen prestakuntza-mailak ere nabarmen egin du gora, eta ikasleriaren eta irakasleen adinak ere bai. Etorkinak ere gero eta gehiago dira, etab. Horiek guztiak eta beste hainbat gauza izango ditugu aztergai hemen.

Mahai ingurua: Euskalduntze-alfabetatzea: Eraginkorrak gara? Norantz goaz?

- AEK
- IKA
- Gabriel Aresti Euskaltegia
- Udal Euskaltegiak

Euskaldun berriak eta euskaldundu direnak. Nola eragin diegu? Zer behar dute?

Esti Amorrortu (Euskal Ikasketen Saila, DU)

Hitzaldi honetan euskal hiztun berriak hiztun aktibo bihurtzeko prozesuan dauden gako mesedegile eta oztopatzaileak aztertuko ditugu; zehazki, euskara erabiltzeko aukerak, daukaten gaitasunaren gaineko autopertzepzio eta asebetetzea, euskararekiko atxikimendua, ikasteko motibazioa ikasteak ekarri dizkien sariak eta euskal hiztun bezala duten autokontzeptua.

Lan mundua: Elefantea. Plangintzak: Inurri-lana. Sareak euskalduntzen.

Patxi Saez (Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendaria eta Euskaltzaindiko Sustapen

Batzordeko kidea)

Maddi Etxebarria (Elhuyar)

Patxi Saez

Zerbait aldatu nahi duenak, lehen-lehenik, aldaketa horren beharra ikusarazi behar du, beharra agerikoa egin behar du. Euskarak beharrezkoa du paradigma aldaketa eta aldaketa horretan euskara laneratzea ezinbestekoa da. Paradigma berriak hizkuntzaren erabileratik etorri behar badu, euskarak behar-beharrezkoa du lan mundua irabaztea, hiztunok esna egiten ditugun orduen erdiak lanean egiten baititugu. Paradigma aldaketaren beharra ikustea, begi-bistan dugun elefantea ikustea da.

Maddi Etxebarria

Badira urteak enpresa eta erakundeetan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko plangintzak martxan daudela, eta, sarri, lan-ildo nagusienetariko bat langileen euskararen ezagutza handitzea izaten da: euskalduntzea, trebatzea, alfabetatzea,... Baina, askotan ikasleek ikasten dutena euren laneko eguneroko testuingurutik urruntxo geratzen da. Eta lantokiak hizkuntzak ikasteko leku gisa irudikatuko bagenitu? Lantokietan ematen dugun astia erabiliko bagenu euskara (edo beste edozein hizkuntza) hobetzeko, praktikatzeko, konpartitzeko eta bizitzeko?

HEOC. Zer eskatzen digu eta zer eskaini?

Luis Maria Gonzalez de Txabarri (HABE)

Curriculum bat hezkuntza-proposamen baten printzipioak eta funtsezko ezaugarriak jakinarazteko saiakera da, eztabaida kritikora zabalik eta praktikan jartzeko moduan dagoena.

Curriculum oro hezkuntza-arazoei begirako erantzun posible bat baldin bada, lortuko den curriculum ez da berdina izango irakasleari irtenbide itxia eskaini behar zaiola pentsatzen baldin bada edota irtenbideak aurkitzeko eta esperimintatzeko lan-eremua.

Curriculumak ez du saihestu behar ikastetxe bakoitzaren izaera idiosinkrasikoa, berriazko kulturaz osatua, zeinetan balio-aukerak, usteak, eta prozesuak burutzeko eta interpretatzeko moduak dauden. Horrenbestez, komunitate bakoitzak bere buruari aitortzen dizkion oinarri teorikoen, balio-aukeren, interesen eta helburuen isla behar du izan curriculum proiektuak.

Curriculum ireki baten alde egiteak irakaslearen prestakuntzaren alde egitea dakar, alegia, garapen pertsonala zein profesionala. Izan ere, lan-proposamenaren interpretazioan galbahe nagusia irakaslearen pentsaera da.

Zelan irakatsi ikuspegi berri batetik

Roberto Mielgo (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila, BAM)

Hizkuntzen irakaskuntzan azken hamarkadan gertatutako aldaketen eraginez, HABEren curriculumak ere hainbat ekarpen jaso izan ditu. Ekarpen horiek irakas-objektuarri buruzko hausnarketa behar izan du, eta aldi berean, horren deskribapenean ezagutza berriak eskuratu beharra ere bai, gramatikatik haratago. Horrekin batera, ordea, irakasteko daukagun hori beste era batera ikusi behar badugu, hori egiteko bide berriak ere behar ditugu. Saio honetan bide berri horien nondik-norakoak erakutsi nahi dira, eta batez ere, honelako galderari erantzun: nola irakatsi gramatikatik haratago irakatsi behar dugun hori?

Berbetan, eleketan, mintzatzen irakatsi. Ahozkoaren garrantzia.

Leire Diaz de Gereñu (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU)

Ibon Manterola (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU)

Hitzaldi honetan ahozkoaren irakaskuntzari dagozkion zenbait auzi jorratuko ditugu. Batetik, curriculumean ahozkoak duen lekua eta haren tratamendua behatuko dugu. Bestetik, ahozkoaren zein dimentsio, zein objektu irakasgarri eta zein helburu nabarmentzen diren hausnartuko dugu. Hizkuntzen didaktikaren ikuspegitik jardungo dugu, ahozkoaren irakaskuntzaren konplexutasuna aintzat hartuta, testu generoetan ardazten den ahozkoaren irakaskuntzarako oinarri teoriko eta metodologikoak proposatuz.

Zer dugu eta zer beharko genuke: Materialgintza

Ane Ortega (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila, BAM)

Bigarren hizkuntza irakasteko edozein programaren berrikusketa sakonak, erabiltzen dituen hizkuntza-ereduen egokitasunaz hausnartu behar du, hau da, ikasleei eskaintzen zaizkien hizkuntza-ereduez: irakaskuntzan erabiltzen diren ahozko eta idatzizko testuak. Benetako egoera komunikatiboetan (ikasleentzako esanguratsuak direnak) oinarritutako Ikuspegi komunikatiboa jarraitzeak egoera komunikatibo errealetako testuak eskatzen ditu. Testu horiek hainbat funtzio beteko dituzte: proposatuko diren atazen ereduak izango dira, ataza horietarako behar diren baliabide linguistikoak erakutsiko dituzte, eta ulermen eta ekoizpen atazak egiteko estimulu egokiak izango dira, baita gramatikaren didaktikarako ere. Planteamendu horretatik hauxe galdetu beharko genuke egiten ari garen Helduen Euskalduntze Alfabetatzeko berrikusketa estrategiko honetan: zer daukagu eta zer beharko genuke? Horixe izango da saio honetan gidatuko gaituen galdera. Dauzkagun ereduak berrikusiko ditugu eta planteamendu berriarekin egokiak liratekeen ereduak proposatuko ditugu.

Euskararen ikaskuntza-prozesuetan teknologiak baliatzeko estrategiak.

Abel Camacho (Santurtziko Udal Euskaltegiko zuzendari ohia)

Mikel Iruskieta (UPV/EHUko irakaslea eta IXA taldeko ikerlaria)

Ingurune digitalean bizi arren, eskolan ikaskuntza-mota edota metodologia berriak nahieran erabiltzeko arazo teknologikoak izan ditzakegu, teknologiaren eraldaketa azkarra edota egokitu gabekoa bada.

Hala ere, irakasleok ere era askotako baliabide teknologikoak sortzen edo erabiltzen ditugu. Baliabideen sorkuntza ere, konplikatu egin da; izan ere, ariketak, datuak edo testuak multimodalak dira egun eta horiek lortzen dute ikasleen arreta edota inplikazioa. Horrez gain, baliabide horiek modu errazean parteka daitezke, bestelako baliabide fisikoak/analogikoak ez bezala. Gainera, baliabide digital horiek gordetzeko, aztertzeko edo prozesatzeko tresnak garatu dira ikerketa arloan eta horrek ekar lezake datu multimodaletan eta testuinguru aberatseko eta hurbileko ebidentzietan oinarrituriko ikaskuntza-mota anitzak eta ebaluazioa.

Hitzaldi honetan euskara ikasteko, irakasteko eta ikertzeko prozesuetan teknologiak testuinguru berri eta aberats horretan zer-nolako ekarpenak egin ditzakeen aztertu nahi dugu. Horretarako, ikaskuntza-motak kontuan hartuta, ikasleek nahiz irakasleek dituzten erronkak eta aukerak deskribatzen saiatuko gara, horiei erantzuteko hainbat aplikazioren azalpen eta adibide emanez. Horrez gain, erronka horietan ditugun gabeziei erantzuteko norberak, komunitateak eta hizkuntzaren garapenerako azpiegiturek duten garrantzia nabarmenduko dugu.

Esperientzia eredugarriak

- **COMBI proiektua: lan eremu elebidunetan komunikatzen: (nagusien zaintzan dabilzan etorkinekin).**
 - Hizlaria: Petra Elser
- **Basauriko trebakuntza. Euskaltegiaren ekarpena Udaleko plangintzan.**
 - Hizlariak: Gotzone Agirre eta Iñigo Isuskiza.
- **Osakidetza, erronka berriak.**
 - Hizlariak: Jabier Gomez, Iratxe Sustatxa eta Agurtzane Sotch.

Basauriko trebakuntza

Basauriko Udalak irakasle bat eskatu zigun euskaltegikoei trebakuntza lanetan aritzeko. Gaitasunaz gain, motibazioa eta ohiturak lantzea ere egitekoen artean zegoen. Hasieran 4 langilek zuten izena emanda udal osoan. Ohiko euskara klaseak espero zituzten. Beste zerbait eman genien eta egun 60 langile ari dira trebakuntzan jasotzeaz gain, plangintzan inplikaturik, eta hori igarri egiten da erabileran. Bertan egindakoak eta egitekoak azaltzea izango da hitzaldi honen helburua.

Osakidetza, erronka berriak.

Bizkaiko zonalde erdaldunetan eta Bilbo Handian ematen den egoeraren argazkia azalduko dugu. Gaur egun, arazoa ez da hainbeste euskararen ezagutza falta, medikuak, erizainak... beste zerbitzuetako kideak euskaldundu egin dira, baina horrek ez du berarekin erabilera ekarri. Datuak aztertu eta profesionalek aipatzen dizkiguten arazoei zein aterabide eskaini dizkiegun ikusiko ditugu (zein ildoren inguruan ari garen lanean azalduko dugu): mediku eta paziente euskaldunak harremanetan jarri, trebakuntza espezifikoak lan-eginkizunak oinarri hartuta, egoera errealean simulazioak, hiztegi espezifikoak...

Ondorioak eta amaiera.